AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2635

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 18koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa betetzeke uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47.3 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2011ko urriaren 28an emandako Ebazpenaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (azaroaren 30eko EHAA, 227. zk.), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Goi-kargudunaren idazkari lanpostua hau: Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzan, 520010 kodea, 164 dotazioa.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri dakioke ebazpena eman duen organoari, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.